

2024

PLAN

ESTRATE

GIKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ikerbasque
Basque Foundation for Science

ikerbasque

Basque Foundation for Science





AURKIE

2024
Plan
estrategikoa



0

SARRERA • 07

5

2024RAKO 12 ERRONKA • 50

1

PLANAREN ELABORAZIO-
PROZESUA • 10

6

2021-2024 EKINTZA PLANA • 54

6.1

Misioa, Ikuspegia eta Balioak • 56

6.2

Arrakastaren Giltzarrizko Faktoreak • 60

6.3

Helburu estrategikoak • 62

6.4

Estrategia 2030

ZTBParekin lerrokatzea • 64

6.5

Alineación de la estrategia
con el PCTI 2030 • 72

6.6

Estrategia GIHeKin lerrokatzea • 74

6.7

Prozesuen mapa • 76

2

KANPO-AZTERKETA: ZIENTZIA • 14

2.1

Joera globalak • 17

2.2

Zientzia Euskadin • 21

2.3

Bestelako ekimenen
benchmarking • 28

3

IKERBASQUEREN
BARNE-AZTERKETA • 30

3.1

Intereseko taldeak • 32

3.2

Pertsonak • 37

3.3

Ekoizpen zientifikoa • 40

3.4

2018-2021 PEaren analisisa • 42

7

AGINTE-TAULA INTEGRALAREN
ADIERAZLEAK • 78

8

AURREKONTUA • 82

4

AMIA ANALISIA • 46

SARF



2024
Plan
estrategikoa

REFERRA

Ikerbasque Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila bultzatuta sortu zen 2007an, bikaintasunezko ikertzaileak erakarri eta Euskadiko talentu zientifikoa berreskuratzeko, eta horren bitartez, ikerketa zientifikoa garatzen laguntzeko.

Urte hauetan guztiotan, gure jarduera lau plan estrategikoren arabera antolatu da (2007-2009, 2010-2013, 2014-2017 eta 2018-2021), eta horiei esker, Ikerbasque talentua erakartzeko erreferente zientifikotzat indartu ahal izan da, bikaintasunez 300 ikertzaile inguru dituela, BERC zentroak sortzen eta garatzen laguntzeaz gain.


Azken Planaren bukaeratik gertu, Ikerbasqueko Patronatuak gogoeta estrategikoko prozesua ezarri du, Ikerbasqueren hurrengo urteetako jarduerak gidatuko dituen 2021-2024 Plan Estrategikoa lantzeari ekiteko.

2024 Plan Estrategikoaren hasieran, zientzia eta politika zientifikoaren arloko munduko joerak aztertu dira, baita Euskadiko Zientziaren egungo egoera ere. Dagokigun testuinguruaren ikuspegi horretatik abiatuta, erakundearen azterketa landu da, errendimenduari buruzko adierazle nagusiak eta parte-hartze bidezko gogoeta estrategiko ireki baten bidez zehaztu ditugun

intereseko taldeen beharrak eta itxaropenak arakatuz. Horren ondorioak AMIA analisisian laburbidu dira, Ikerbasquek datozen urteetan izango dituen ahulezia, mehatxu, indargune eta aukera nagusiak jasoz.

Analisi horretan oinarrituta, 2021-2024 epealdian Ikerbasqueren bidea gidatu behar duten misioa, ikuspegia eta balioak birdefinitu dira. Planak **12 erronka** ezarri ditu **2024rako**, eta horietarako **7 helburu estrategiko** proposatu ditu 40 jarduera-ildotan banatuta, 2030 ZTB Parekin nahiz Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) lerrokatutako asmo handiko helburu zehatzak barne. Era berean, Plan Estrategikoa gauzatzeko erabiliko diren prozesuen eredua zehaztu da, baita Plana garatzeko aurrekontu-aurreikuspena ere, Planaren denbora-muga osoari dagokiona.

DATU NAGUSIAK 2021 · 2024



+ 100


IKERBASQUE IKERTZAILE
GEHIAGO

40%

EMAKUME
IKERTZAILEAK


89
milioi €

IBERTSIOA TALENTU
ZIENTIFIKOAREN GARAPENEAN



+1.000

IKERKETA
PROIEKTU BERRI



150
milioi €

EUSKADIN IKERKETA GARATZEKO
IKERBASQUE IKERLARIEK
LORTUTAKO FUNTSAK

1.500

IKERBASQUE IKERLARIEN IKERKETA
TALDEETAKO PERTSONAK

ikerbasque
Basque Foundation for Science

400

IKERBASQUE
IKERTZAILEAK

36

JATORRIZKO
HERRIALDE

25

EUSKADIKO UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA ZENTROETAN

+6.000

IKERKETA
ARTIKULUAK

50%


ARTIKULUAK MUNDUKO LEHEN
MAILAKO ALDIZKARIETAN

30
milioi €

EUSKAL ZIENTZIA
SISTEMA INDARTZEKO

25

ENPRESA OINARRI ZIENTIFIKO-
TEKNOLOGIKOAREKIN



20
ERC


PROIEKTU
EUROPEAN RESEARCH COUNCIL

PLANAREN ELABORAZIO- PROZESUA

1



PLANAREN ELABORAZIO- PROZESUA




Urte hauetan guztian, gure jardura **lau plan estrategikoren** arabera antolatu da (2007-2009, 2010-2013, 2014-2017 eta 2018-2021).

Ikerbasqueren 2018-2021 epealdirako Plan Estrategiko berria gogoeta estrategikorako parte-hartze bidezko prozesu baten bitartez landu da, gure intereseko talde guztien partaidetzaz, hauen beharrezaneiei eta bereziki Euskal Zientzia Sistema osatzen duten eragileen beharrezaneiei behar bezala erantzuteko asmoz.

ATARIKO FASEA 2020KO ABENDUA

- Gogoeta estrategikoko parte-hartze bidezko prozesuaren eta intereseko taldeen definizioa
- Beste erakunde zientifikoek plan estrategikoen azterketa konparatiboa



I. Etapa



II. Etapa



III. Etapa



ANALISIA

2021EKO URTARRILA - MARTXOA

- Kanpo-azterketa, intereseke taldeen parte-hartzeaz
- Ikerbasqueren barne-azterketa: autoebaluazioa, arriskuen analisia, errendimenduaren azterketa
- Misioa, Ikuspegia eta Balioei buruzko eta arrakastarako faktore kritikoei buruzko gogoeta estrategikoa
- Helburu estrategikoen, jardueraildoen eta aginte-taula integralaren garapena

EGIAZTAPENA ETA ONARPENA

2021EKO MARTXOA - MAIATZA

- 2018-2021 Plan Estrategikoaren zirriborroa
- Zirriborroa Batzorde Exekutiboan aurkeztu eta onartzea
- Batzorde Exekutiboaren eta Patronatuaren ekarpenak berrikustea
- 2018-2021 Plan Estrategikoaren behin-betiko idazketa
- Fundazioko Patronatuaren amaierako onarpena

HEDAPENA ETA JARRAIPENA

2021 - 2024

- 2021-2024 Plan Estrategikoa intereseke taldeei ezagutzera ematea
- Adierazleen jarraipena eta urteko ebaluazioa
- Lortutako emaitzen komunikazioa




KANPO- AZTERKETA: ZIENTZIA

2



KANPO- AZTERKETA: ZIENTZIA



Ikerbasqueren Plan Estrategikoa garatu ahal izateko, behar-beharrezkoa da ingurunea aztertu eta Zientziaren munduko joerak zehaztu eta ulertzea, Ikerbasquek datozen urteetan bete dezakeen eginkizunaz jabetzeko.



2.1 Joera globalak

Aurrerapen zientifikoen eskutik erantzun egokiak eman ahal zaizkie Gizateriak gizarte, ekonomia zein ingurumen arloetan dituen erroinei. Horren harira, nahitaezkoa da aurrerapen zientifiko horren mundu-mailako joerak ezagutzea:

2.1.1 Gorabidean dauden ikerketa eta garapen arloak

XXI. mendean, ikerketa eta garapena nabarmen areagotu dira munduak gainditu beharreko erroin sozialetan lerrotuta dauden ikerketa-arlo berrietan, eta hauek gero eta oihartzun zabalagoa dute, bereziki gizarterako transferentzian duten potentzial handiaren eraginez:

- Nanoteknologia: Hauxe da milurteko berriko teknologia. Hainbat arlotan aplikatzeko aukera handiak dituela, esparru honetan izandako aurrerapenak inaktu zuzena dute industria eta sektore guztietan.
- Datuen goraldia: Adimen Artifizialak, robotikak, digitalizazioak eta superkonputazioak eskaintzen dituzten aukerak inplikazio teknikoak eta etikoak dituzte. Horien inaktua esparru zientifiko-teknologikotik harantzagokoa da eta gure gizarte-eredua ere aldaraz lezake.
- Osasuna eta bioteknologia: Medikuntzaren arloko aurrerapenak beharrezkotzat jotzen dira giza-bizitzaren kalitatea hobetzeko, eta ondorioz, diziplina horietako ikerketak interes zientifiko handia izaten jarraituko du. Aurrerapen handiak espero dira espezialitate guztietan, baina erroin nagusia giza-gorputzaren osagirik ezezagunena ulertzea izango da: garuna.
- Naturaren kontserbazioa eta energia garbiak: Klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa dira gure gizartearen erroin

nagusietako batzuk, eta horren harira, ahalegin zientifiko handiak egiten ari dira arlo honetan. Gainera, *Do No Significant Harm* (DNSH) bezalako mugimendu berriek ingurumenarekin arduratsua den ikerketa sustatzen dute diziplina zientifiko guztietan.

2.1.2 Zientziaren munduko lidergoaren deszentralizazioa

Azken mendeetan, Europak, Ipar Amerikak eta Japoniak lideratu dute aurrerapen zientifikoa. Hala ere, gorabidean dauden herrialdeak garatu ahala, Zientziaren munduko oreka aldatuz joan da.


Oraindik, Europari eta Ipar Amerikari dagokie 2020ko munduko ekoizpenaren % 30 eta % 20 baino gehiago, hurrenez hurren, baina horien pisua gero eta txikiagoa da, munduko player berrien mesedetan. Horrek ezin argiroago iradokitzen digu munduko ekoizpen zientifikoa gero eta banatuago dagoela.

Gorabidean dauden herrialdeen garrantzi gero eta handiagoaren adibidetzat, Txina herrialde nagusia bihurtu da 2020an ekoizpen zientifiko absolutuari dagokionez, munduko ekoizpen zientifikoaren % 20 baino gehiagoren jabe delarik. Goranzko joera hori, neurri txikiagoan bada ere, bere horretan egiazta daiteke Indian, Latinoamerikan, Ekialde Ertainean edota Asiako hego-ekialdeko herrialdeetan, mendebaldeko herrialdeak galtzen ari diren protagonismoaren kaltetan.

Munduan ongien baloratuta daude aldizkari zientifikoek % 1ean argitaratutako kalitate goreneko ekoizpenari dagokionez, AEBk lidergoari eutsi dio oraindik ere, argitalpen horien % 40 baino gehiagoren jabe delarik (1. irudia). Ekoizpen horren % 20 Txinari dagokio, Europako herrialdeetatik edo AEBetatik urrun. Alabaina, Txinaren hazkunde esponontzialaren aldean, Europa gertatu den geldialdia eta AEBen azken hamarkadetako beherakada kontuan harturik, litekeena da ondorengo hamar urteetan Txina horien parean jartzea.

Munduko bikaintasunezko ekoizpen zientifikoaren ehunekoak, Europa, AEB eta Txina barne hartuta.

1. irudia · Iturria: SciVal





2.1.3

Diziplina zientifikoen arteko konbergentzia

Eredu tradizionaletan, ezagutza zientifikoa ikerketa-jarduna garatzen duten hainbat ikerketa-arlotan banatuta dago. Diziplina horietan bildutako ezagutza gero eta handiagoak erabateko espezializazioa ekarri du, eta honen ondorioz, gero eta zailagoa da ikertzaileentzat hainbat espezialitateri dagokienezagutza-espektrora zabala hartzea.

Ezagutza zientifikoa areagotu ahala, gero eta konplexuak dira Zientziak gainditu beharreko erronkak. Hortaz, gero eta beharrezkoagoa da hainbat espezialitatetako adituren arteko lankidetzak, gero eta aurreratuagoak diren galderei erantzun ahal izateko. Ildo horretan, gero eta garrantzitsuagoa da ikerketa-proiektuen diziplina-aniztasuna, hainbat arlotako adituen ezagutza uztartu eta arazoei hainbat ikuspuntutatik heltzeko aukera ematen baitu, askotariko soluzioei atea irekiz.

Horren guztiaren ondorioz, erakundeetatik diziplina anitzeko ikerketa-eredua sustatzen ari da, hainbat jakintza-arloren arteko sinergien sorrera eta horien zeharkakotasuna bultzatuz.

2.1.4

Zientziaren inpaktu soziala bultzatzea

Ezagutza zientifikoaren hazkundea izan da beti aurrerapen teknologiko eta soziala eragin duen palanka, eta horrek gizateriaren aurrerapena erraztu du. Hala ere, transferentzia hori ez da beti jardun zientifikoaren berezko eginkizuntzat hartu, izan ere, batzuetan, zientzialarien lanaren helburu bakarra ezagutza sortzea izan da, ezagutza horren geroko aplikagarritasunari erreparatu gabe.

Alabaina, gero eta beharrezkoagoztat jotzen da ezagutza berri horrekin gizartearen inpaktu zuzena sortzea, ezagutza zientifikoa gizartearen zerbitzura jartzea ikertzaileen

jardunari dagokion zeregina dela azpimarratuz. Horrek ez du esan nahi, inondik inora, Zientzia irizpide utilitarista hutsaren arabera bideratu behar denik, bakarrik alderdi praktikoak baloratuz. Nolanahi ere, argitalpen zientifikoak berezko helburutzat jotzearen aldeko irizpidea gero eta murriztagoa da, eta oraingo xedea etorkizuneko lanetan izan dezakeen oihartzuna eta inpaktu soziala dira. Horrela, Zientziaren egungo joera, gauza *baliagarriak*, ez bakarrik *interesgarriak*, barne dituen eredu baten aldekoa da.

Testuinguru honetan, medikuntza translazionala (*from bench to bedside*), *Teknozientzia*, *Responsible Research and Innovation* eta antzeko kontzeptuek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute, politika zientifikoak gizartearen behar eta eskaeretara bideratuz, eta ezagutza zientifikoaren instrumentalizazioaren alde apustu eginez, berrikuntza teknologikoa eta ikerketaren itzulera soziala bultzatzeko.

2.1.5

Zientzia eta politika

Ezagutza zientifikoak Zientzian oinarritutako ebidentzien arabera erabakiak hartzen lagun diezaieke arduradun politikoei. Zientziaren eta politikaren arteko harremanak indartzea gizarte aurreratuaren behin eta berriz egin den eskaera da, baina askotariko emaitzak izan ditu munduan zehar.

Azkenaldian, ordea, koronabirusaren krisiaren harira, irizpide zientifikoa erabaki politikoetan txertatu da, pandemiak eragindako beharrak bultzatuta. Krisi honetan, gainera, argi geratu da sistema zientifiko indartsua izatea tresna eraginkorra dela erronka sozialei aurre egin ahal izateko.

2.1.6 Garapen Iraunkorrerako Helburuak

Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH), Nazio Batuetako estatu kideek pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta mundu osoarentzako bakea eta oparotasuna ziurtatzeko 2015eko irailean onartu zuten 2030. urterako agenda osatzen dute. Agenda hori herrialde guztiek aurrera atera beharreko aplikazio unibertsaleko 17 helbururen inguruan egituratu da.

Gobernuen bultzadaz, gure gizarteko esparru guztiek helburu horiek aurrera ateratzen laguntzea eta proposatutako helmugetara iristea dute xede. Testuinguru honetan, Zientzia eta garapen teknologikoa funtsezko tresna dira GIHak garatzeko, izan ere, *ezagutzaren gizartea* deritzonaren bultzatzaileak diren heinean, eginkizun estrategikoa betetzen dute gure gizartean. Eragile zientifikoak katalizatzaileak izan daitezke heldu beharreko erronkak aztertzeke eta horiei aurre egiten lagun dezaketen tresnen (teknologia, Zientzia Aplikatua edo berrikuntza soziala) garapenean modu aktiboan parte hartzeke.

2.1.7 Ekoizpen zientifikoaren ebaluazioa

Ekoizpen zientifikoa ebaluatzea lan konplexua izan da beti. Horretarako garatu diren adierazle bibliometrikoek argitalpenaren ezaugarri jakin batzuk dituzte oinarri sortutako ezagutza berriak izan duen eragina neurtzeko, hala nola, argitalpenaren aldizkaria, beste lan batzuetan zenbat aldiz aipatu den edo lanaren ikerketa-arloa.

Adierazle bibliometriko horiek output zientifikoa ebaluatzeke tresnatzat erabiltzen dituzte askotan agentziek eta erakundeek. Ondorioz, batzuetan, adierazle bibliometrikoek argitaratutako lanaren edukiak berak baino garrantzi handiagoa hartzen dute.

Nazio Batuek zehaztutako Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak.

2. Irudia





Hala ere, gero eta gehiago dira errealitate horren aurka altxatu diren ahotsak, izan ere, artikulua baten garrantzia ez dago beti lerrokatuta bere adierazle bibliometrikoekin. Horren adibide argia dira online argitalpenak. Joera berri honen balio bibliometrika oso txikia da eta batzuetan ez dator bat lanaren edukiarekin. Horregatik, “egindako aurkikuntzaren” balioa baloratzeko eskatzen dute, eta ez horrenbeste lanaren adierazle bibliometrikoak.

Joera hori hainbat ekimenetan islatu da mundu osoan, eta horien artean, honako hauek nabarmen ditzakegu:

- DORA - Declaration on Research Assessment: Ikerketaren ebaluazioari buruzko San Frantziskoko Adierazpena (DORA, ingelesezko siglen arabera) 2012an argitaratu zen. Bertan, ekoizpen zientifikoa neurtzeko ebaluazio bibliometriko hutsa saihesten duten printzipio batzuk ezarri ziren.
- Leidenen Manifestua: 2015ean Diana Hicks eta Paul Woutersek beste zientzialari batzuen lankidetzaz Nature aldizkarian argitaratutako printzipioen multzoa da. Manifestu honen bitartez, adierazle bibliometrikoen gehiegizko erabilera prebenitu nahi dute ekoizpen zientifikoa ebaluatzerakoan, ebaluazio kualitatiboagoa sustatuz.

2.2

Zientzia Euskadin

Zientziaren mundu mailako joera globalak aztertu ondoren, Euskadin jarriko dugu arreta, egungo egoera eta etorkizuneko beharrak estaltzeko dituen tresnak eta gaitasunak aztertzeko.

2.2.1

Politika Zientifikoa

Euskadiko politika zientifikoa 2030 ZTBP izenaz ezagutzen den Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren arabera antolatuta dago, hauxe baita Eusko Jaurlaritzak I+G+b bultzatzeko garatzen dituen politika eta jardura guztiak integratu eta koordinatzen dituen erreferentziatzeko esparrua.

2030 ZTBP beste plan batzuekin lotuta dago “Agenda Basque Country 2030” deritzon herrialde-estrategia globalaren barruan, baita Europako *Horizon Europe* esparru-programa berriarekin ere, eta *talentua* du ardatz, hiru zutabe estrategikotan oinarrituta:

- Bikaintasun zientifikoa
- Lidergo teknologiko industrial
- Berrikuntza irekia

2030 ZTBPari heltzeko lau helburu operatibo zehaztu dira, eta helburu horiek Eusko Jaurlaritzak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (ZTBES) indartzeko eta planean jasotako helburuak lortzeko antolatu dituen zenbait tresnaren bitartez hedatuko dira, alderdi nagusi hauen inguruan:

- Pertsona-kopuru zabalaren prestakuntza bultzatzea arlo zientifiko-teknologikoan.
- Goi-mailako ikerketa-azpiegiturak sortu eta sendotzea.
- Aurrerapen zientifikoez baliatzea Euskadiren garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako.

Politika zientifikoari dagozkion ekimen gehienak Hezkuntza Sailak abiarazi ditu. Hala ere, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila ere gaitasun zientifiko-teknologikoak sustatzea xede duten tresna garrantzitsuen arduraduna da, eta Osasun Sailak I+Grako tresna espezifikoak ditu sektore biosanitarioan.

2.2.2

Eragile nagusiak

Politika zientifikoa hedatzeko, Euskadik bost erakunde edo sektore motaren arabera egituratuta dauden zenbait zentro eta erakunde ditu. Sektore bakoitzari arlo jakin bat dagokio espektro zientifiko-teknologiko osoa barne hartzeko asmoz: oinarritzko ikerketaren hastapenetako etapetatik gizarterako trasferentziaraino, garapen teknologiko-industrialaren bitartez:

- **Unibertsitateak.** Besteak beste, Euskadin oinarritzko zientzia eta zientzia aplikatua garatzea dute helburu, ezagutza zientifikoaren sorrera eta balorizazioa bultzatuz, gizarte-garapenerako elementu aktiboa izan dadin.
- **Basque Excellence Research Centers (BERC).** LBederatzi BERC ikerketa-zentroen sareak euskal zientzia-sistema indartzen du arlo espezifikoetan, eta bikaintasunezko ikerketa bultzatzen du unibertsitate-ingurunean.
- **Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC/IKZ).** CIC ikerketa-zentroek oinarritzko eta aplikatutako ikerketa-jarduera garatzen dute, ikerketa estrategiko lehiakorra eta industria-sarerako transferentzia sustatuz.
- **Ikerketa Sanitarioko Zentroak.** Hiru Ikerketa Sanitarioko Institutuak (ISI) eta irakaskuntzan nahiz ikerketan diharduten Osakidetzako ospitaleak Euskadiko osasun arloko ikerketaren funtsezko osagaiak dira.

- **Zentro teknologikoak.** Zentro teknologikoak eragile garrantzitsuak dira zientzia aplikatuaren sorkuntzarako, ikerketa lehiakorreko proiektuen eta enpresekiko kontratu eta ekintza estrategikoen bitartez. Zentro hauek, lau CIC zentroekin batera, *Basque Research & Technology Alliance (BRTA)* deritzon partzuergo zientifiko-teknologikoa osatu dute, Euskadiko erronka teknologikoa eta industrialei modu eraginkorragoan erantzun ahal izateko.

2.2.3

Errendimenduaren azterketa

Euskadi ezagutzaren gizartearen arloko nazioarteko erreferentetzat posizionatu ahal izateko, beharrezkoa da kalitatea eta bikaintasuna ezaugarri dituen zientzia-sistema izatea, sortutako ezagutza ustiatzeko gaitasuna duena.

Historikoki, I+Gko gastuan nahiz ikerketa arloko langilerian izandako bilakaerak izaera teknologiko nabarmena eman dio euskal zientzia eta teknologia-sistemari. Hala ere, azken hamarkadetan ahalegin handia egin da diziplina zientifikoak sustatzeko, arlo horietako bikaintasunetik gizartearen onurako emaitzak lortzearen, Europa mailan bultzatutako estrategiarekin bat eginez.


Finantzaketa

Ikerketaren finantzaketak garrantzi nabarmena du I+G arloko politiketan, izan ere, denboran iraunkorra den inbertsio sendoa izatea zientzia eta teknologia-sistemaren lehiakortasunaren oinarrietako bat da.

Euskadin, I+G arloko inbertsioak oso joera positiboa izan du azken mendean. 2010etik 2015era bitartean uzkuertze arina gertatu zen arren, azken urteotan I+G arloko inbertsioa berriz ere hazi da, 2018an 1.400 milioi euro gainditu arte, ordura arteko kopururik handiena lortuz: Euskadiko *BPGaren ia % 2*.

I+G arloko inbertsioa Euskadin azken hamarkadetan.

3. Irudia · Iturria: Eustat



Pertsonak

Zientziaren aldeko apustu honi esker, pertsona gehiago sartu ahal izan dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES), I+Gan diharduen langile-kopurua handituz, hauexek baitira gure lurraldean garapen zientifikoa bultzatzen dutenak. Etengabeko ahalegin horren ondorioz, egun 20.000 pertsonak baino gehiagok dihardute Euskadin, osorik nahiz zatika, ikerketan eta garapenean, biztanleria aktiboaren ia % 2k.


Dedikazio Osoaren Baliokidetasunean (DOB), Euskadik I+Gan diharduten 13.000 pertsona baino gehiago ditu, DOBeko biztanleria

aktiboaren % 1,22. Honek iparraldeko herrialdeen (Danimarka, Suedia eta Finlandia) atzetik kokatzen gaitu, Europako batez bestekoa (% 0,86) baino 40 puntu gorago.

Nabarmentzekoa da Euskadin ikerketan dihardutenen biztanleen hazkundeak ez duela nabarmen lagundu sektorean dagoen genero-etena murrizten. Horrela, 2018an DOBko emakumeen portzentajea ozta-ozta iristen zen % 35era, eta azken 20 urteotan % 5 baino ez da igo.

2018an ikerketan lan egiten zuen DOBeko biztanleria aktiboaren portzentajea

4. Irudia · Iturria: Eurostat





Ekoizpen Zientifikoa

Euskadin ikerketa arloko langile-kopuruan izandako igoerak EAEn sortutako ezagutza berriaren gorakada ere ekarri du, argitaratutako dokumentu zientifikoek kopuruan neurtuta.

Euskadin argitaratutako dokumentu zientifikoek kopurua.

5. Irudia · Iturria: Scopus






Gainera, munduko erreferentziazko aldizkarietan egindako argitalpenen portzentajea aztertuz gero, argi dago kopuruak gora egin duela, bereziki 2010etik aurrera. Horrek iradokitzen digu Euskadin argitaratutako lanen kalitatea hobetu dela azken hamarkadan, nazioarteko ospe handiko aldizkarietan izandako argitalpenen ehunekoak gora egin duen heinean.

Euskadik lehen kuartilean (Q1), hau da, Scimago Journal Rank-ek (SJR) ongien baloratutako munduko aldizkarien % 25ean duen ekoizpen zientifikoaren ehunekoa.

6. Irudia · Iturria: Scival



2.3
Bestelako ekimenen benchmarkinga

Zientzialariak erakarri eta EAEn finkaraztea da Ikerbasquek Zientziaren Euskal Sistema indartzeko garatzen duen jarduera nagusia. Testuinguru honetan, balizko hautagaiak erakartzeko ahaleaginean Ikerbasquerekin lehia daitezkeen nazioarteko, estatuko eta beste autonomia-erkidego batzuetako programak aztertuko ditugu jarraian.


2.3.1
Ikerbasqueren posizionamendua Euskadin

Talentua erakartzea xede duten Ikerbasqueren programek berezko lekua dute Eusko Jaurlaritzak ikertzaile-karrera gure lurraldean garatzeko zehaztu duen ibilbidean.

Honela, ikertzaileak erakartzea xede duen Ikerbasqueren programak nitxo propioa du ikertzaile-karreraren faserik aurreratuenetan, eta Eusko Jaurlaritzak ez dauka profil horietara bideratutako bestelako programarik.

Hala ere, doktorego ondoko ikertzaileei zuzendutako estatuko zein nazioarteko beste programa batzuk Ikerbasqueren programen lehaikideak dira eta Fundazioak zehatz-mehatz aztertu ditu Plan Estrategiko berri hau finkatzeko.

7. Irudia





2.3.2

Doktorego ondoko beste programa batzuen azterketa

Hainbat ekimenek talentua erakarri eta txertatzea dute helburu, zientzia-sistemak indartzearen.

Ikerbasquek etengabe monitorizatzen ditu ekimen horiek, eta nazioarteko benchmarking-ekintzak ere antolatzen ditu, intereseko talde batzuen beharrak hobeto ezagutzeko eta ikasitakoa geure estrategian txertatzeko.

ERAKUNDEA	PROGRAMA
Europako Batzordea	Marie Skłodowska Curie Actions europar programak diziplina zientifiko guztietako ikertzaileen prestakuntza eta garapen profesionala bultzatzea du helburu. Hartara, Individual Fellowships (IF) modalitateak esperientzia duten ikertzaileak finantzatzen ditu, Europan ikerketa-proiektuak gara ditzaten. Gainera, ERCren laguntzek bikaintasun zientifikoko proiektuak finantzatzen dituzte.
Estatuko programak	Estatuan, esperientzia duten doktorego ondoko ikertzaileei zuzendutako hiru programa daude, nagusiki: Ramón y Cajal programa, Miguel Servet programa eta Beatriz Galindo senior deritzona. Ikerketan diharduten langile hauek Euskadin finkarazteko, programa horiek Research Fellows programarekin parekatu dira, Estatuko programa horiei atxikita Euskadin lan egiten duten ikertzaileei ebaluazioa egiteko eta Ikerbasquen Research Associates plaza iraunkorra lortzeko aukera emanez.
Beste programa autonomikoak	Zenbait autonomia-erkidegok Ikerbasqueren programaren antzekoak dituzte martxan talentua erakartzeko, gure Research Fellows nahiz Research Associates eta Professors kategoriak tarteko dituzten profiletarako. Hauexek dira programa horietako batzuk: ICREA (Katalunia), Araid (Aragoi), GAIN Oportunius (Galizia), Talentia (Andaluzia) edota Generación Talent (Valentzia), batzuk aipatzearen.
Finantzaketa pribatua	Erakunde pribatuek ere finantzaketa-programak abiarazi dituzte, Espainian kalitate handiko ikerketa berritzailea sustatu eta talentu zientifiko onenei laguntzeko, bikaintasunezko ikerketa egiteko moduko ingurune erakargarri eta lehiakorra eskainiz. Horien adibide dira zenbait enpresaren bekak: La Caixa Gizarte Ekintzarenak, BBVA Fundazioarenak edota Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearenak eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuenak.

IKERBASQUEREN BARNE- AZTERKETA

3



INTERESEKO TALDEAK



3.1

Intereseko taldeak

Intereseko taldeekin harreman ona izateak ezagutza errazten du erakundeak bere intereseko gaiei erantzuteko dituen aurreikuspenei buruz. Horren bitartez, lkerbasquek aliatuekin duen elkarren arteko konfiantzan sakondu nahi du, gaitasun bereizgarrietan oinarritutako balioa eta lehia-abantaila iraunkorrak sortzeko gaitasunean lagunduz. Intereseko taldeen azterketa funtsezkoa da erakundearen gaitasun bereizgarriak sortzeko eta, ondorioz, jardueretan arrakasta lortu eta helburu estrategikoak bete ahal izateko.

Ikerbasquek giltzarrizkoak diren intereseko talde batzuk identifikatu ditu, horiexekin lotuta baitago gure jarduerak. Hona hemen interes-talde horietako bakoitzaren azterketa:



INTERESEKO TALDEAK			BEHARRAK, ESKAKIZUNAK ETA ITXAROPENAK
EUSKAL ZIENTZIA SISTEMA	DU, MU, IKZ/CIC, ISIak, ZZTT	Administrazio Zuzendaritzak	Ikerketan diharduen langile-kopurua eta zentroen prestigioa handitzea, Ikerbasqueko zientzialariak sartuz. Ikertzaile hauen integrazio egokia erraztea.
		Zuzendaritza Zientifikoak	Zientzialari interesgarriak identifikatu eta erakartzen laguntzea zentroaren bikaintasun zientifikoa areagotzeko. Soluzioak eskaintzea eskalako arazoei. Gainerako eragileekiko solaskide lana egitea.
		Ikerketako langileak	Ikerbasqueren eskaintzari buruzko ideia argia, zertan lagundu ahal dien.
	BERC zentroak	Administrazio Zuzendaritzak	Ikerketan diharduen langile-kopurua eta zentroen prestigioa handitzea, Ikerbasqueko zientzialariak sartuz. Ikertzaile hauen integrazio egokia erraztea.
		Zuzendaritza Zientifikoak	Zientzialari interesgarriak identifikatu eta erakartzen laguntzea zentroaren bikaintasun zientifikoa areagotzeko. Soluzioak eskaintzea eskalako arazoei. Gainerako eragileekiko solaskide lana egitea.
		Ikerketako langileak	Ikerbasqueren eskaintzari buruzko ideia argia, zertan lagundu ahal dien.
	UPV/EHU	Errektorego eta kudeaketa taldea	Ikerketan diharduen langile-kopurua eta zentroen prestigioa handitzea Ikerbasqueko zientzialariak sartuz. Ikertzaile hauen integrazio egokia erraztea.
		INak eta finkatutako taldeak	UPV/EHUren nazioarteko prestigioa hobetzea. Kasu batzuetan, ikerketan diharduten Ikerbasqueko profesionalak sartzea beren ikerketa-taldeetan.
		Ikerketako gainerako langileak	Ikertzaile-karrera propioa garatzeko erraztasunak.

INTERESEKO TALDEAK			BEHARRAK, ESKAKIZUNAK ETA ITXAROPENAK
Ikerbasque	Kudeaketa taldea	Staff-a	Karrera profesionala bizitza-proiektuarekin bat datorren ingurunean garatzeko aukera. Hori guztia, bidezko ordainsaria emanez, merkatuko parametroen arabera.
	Ikertzaileak	Research Fellow	Karrera zientifikoa giro profesional eta pertsonal egokian garatzeko aukera. Ebaluazio-irizpide argien araberrako finkapen-prozesua. Helburuko zentroaren eta Ikerbasqueren arteko harreman arina.
		Research Associate	Karrera zientifikoa giro profesional eta pertsonal egokian garatzeko aukera. Sustapen-prozesu argia. Helburuko zentroaren eta Ikerbasqueren arteko harreman arina. Lehiatzeko baldintzei eustea.
		Research Professor	Karrera zientifikoa giro profesional eta pertsonal egokian garatzeko aukera. Sustapen-prozesu argia. Helburuko zentroaren eta Ikerbasqueren arteko harreman arina. Lehiatzeko baldintzei eustea.
HAUTAGAIK	Hautagaiak	Hautaezi-nak	Gure deialdietako hautaketa-irizpideei buruzko informazio argia.
		EZSan hautagariak	Informazio zehatza, prozedura argi eta ari-nak, eskaintza ekonomiko-tekniko egokia, segurtasuna, ziurtasuna.
		EZSetik kanpo hautagariak	Informazio zehatza, prozedura argi eta ari-nak, eskaintza ekonomiko-tekniko egokia, segurtasuna, ziurtasuna. Lanean hasteko erraztasunak.



INTERESEKO TALDEAK			BEHARRAK, ESKAKIZUNAK ETA ITXAROPENAK
EUSKO JAURLARITZA / PATRONATUA	Hezkuntza Saila	Sailburua, sailburuordea eta zuzendaria	Ikerbasqueri agindutako politika zientifikoko ekintzak garatu eta beste erakunde batzuentzat eredu izatea.
	Patronatua	Aldundiak, innobasque eta beste patronoak	Emaitzen adierazleen ebaluazioa eta Fundazioaren jarraipen ekonomiko-finantzarioa, irudia eta proiektzioa.
	Bestelako sailak	Osasuna eta Ekonomi Garapena	Ikerbasque Eusko Jaurlaritzaren veste sailetako ikerketa indartzea.
	Lehendakaritza	ZTBK Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Komisionatua	Ikerbasque Eusko Jaurlaritzaren aliatua izatea ZTBP 2030ren hedapenerako.
KANPO LAGUNTZA-ILEAK	Hornitzai-leak	Giltzarritzko hornitzaileak	Errentagarritasuna, fideltasuna eta komunikazio ona eskainiko dizkien erakundea izatea.
	Ebaluatzaileak	Komite zientifikoa	Komunikazio argia eta plangintza egokia, lanaren helburuak ulertu eta barneratu ahal izateko.
		Kanpo ebaluatzaileak	Komunikazio argia eta plangintza egokia, lanaren helburuak ulertu eta barneratu ahal izateko.
	Beste erakundeak	Espainiako Gobernua	Ikerbasque estatuko gaitasun zientifikoa hobetzea eta bere helburuak lortzen laguntzea.
		Europako Batzordea	Ikerbasqueren lana EBren estrategiarekin lerrokatu, eta hitz emandako programak betetzea. Ikerbasquek Europaren gaitasun zientifikoa hobetzea.
		Gipuzkoa Sustapena eta Bizkaia Talent	Ikerbasquek talentua erakarri eta aberriratzeko helburuak lortzen laguntzea. Kontsultak ebazten laguntzea.

INTERESEKO TALDEAK			BEHARRAK, ESKAKIZUNAK ETA ITXAROPENAK
GIZARTEA	Gizartea, oro har	Gizartea	Euskadiren gaitasun zientifikoa hobetu eta Funts Publikoen erabilera egokia egitea.
	Komunika- bideak	Komunika- bideak	Ikerbasqueren jardueri buruzko informazio ulergarria, erakargarria eta osoa ematea. Haien kontsultei erantzun azkar eta egokia ematea.
TALENTU ZIENTIFIKOA ERAKARTZE- KO PROGRA- MAK DITUZ- TEN BESTE ERAKUN- DEAK	Estatukoak	ICREA, ARAID, FECYT, GAIN, CSIC, Unibertsitateak, Ikerketa Zentroak	Ikerbasquek Estatuaren gaitasun zientifikoa hobetzea eta zentroen arteko kolaborazioa sendotzea.
	Nazioarte- koak	Unibertsitateak, Ikerketa Agentziak, I+G Finantzatzeko Zentroak	Ikerbasquek Europaren gaitasun zientifikoa hobetzea.

3.2


Pertsonak

Sortu ginenez geroztik, ikerketa arloko talentua erakartzea izan da gure lanaren ardatz nagusia eta Ikerbasqueren nortasunaren bereizgarria. Gogotik lan egin dugu adimen zientifikorik onenak Euskadira erakartzeko, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) edozein ikerketa-zentrotan (euskal unibertsitateetako sailak, ospitaleetako ikerketa biosanitarioko zentroak, BERC zentroak, CIC/IKZ zentroak eta zentro teknologikoak barne) lan egiten jarraitzeko aukera izan dezatela bermatzen laguntzeko.

Horren harita, Ikerbasqueko ikertzaile-kopurua etengabe gehitu da erakundea eratu zenetik, 2020an 290 ikertzaile bilduz, hiru kategoriatan banatuta: Research Professor (dagozkien ikerketa-arloetako liderrak diren ikertzaile seniorrak), Research Associate (ikertzaile finkatuak) eta Research Fellow (etorkizun handiko zientzialari gazteak).

Ikerbasqueko ikertzaile-kopurua, kategorien arabera.


8. Irudia · Iturria: Ikerbasque



Ikerketan diharduten langileak sexuen arabera banatuz gero, parekotasuna oraindik urrun dagoen arren, Ikerbasquek arlo horretan egindako etengabeko ahaleginari esker, 2020an, ikerketa arloko langileen % 25 emakumeak dira.

Ikerbasqueko zientzia arloko langileen artean dauden emakume ikertzaileen ehunekoa.


9. Irudia · Iturria: Ikerbasque



Ikerbasqueko ikertzaileen banaketa sektore bakoitzeko ekoizpen zientifikoarekin lerrokatuta dago. Horren ondorioz, unibertsitate-sektorea da Ikerbasqueko ikertzaile gehien biltzen duena, UPV/EHUK Zientziaren Euskal Sistemaren duen presentzia handia dela eta.

Ikerbasqueko ikerketa arloko langileen banaketa, sektoreen arabera.

10. Irudia · Iturria: Ikerbasque




3.3

Ekoizpen zientifikoa

Sortu zenez geroztik, Ikerbasquen ekoizpen zientifikoa gehituz joan da urtez urte, 2020an 1.345 argitalpen zientifiko egin zituelarik.

Ikerbasquek argitaratutako dokumentu zientifikoek kopurua.


11. Irudia · Iturria: Scopus



Gainera, ekoizpenarekin batera, kalitatea ere areagotu da, munduko aldizkari zientifiko onenen % 25ean egindako argitalpenen ehunekoetan neurtuta (lehen kuartila, Q1). Honela, 2020an, Ikerbasqueren ekoizpenaren % 80 baino gehiago aldizkari zientifiko horietan argitaratu zen, Euskadiren batez bestekoa % 20 gaindituz:

Ikerbasquek eta Euskadik munduan ongien baloratutako aldizkarien % 25ean argitaratutako ekoizpen zientifikoaren ehunekoa, Scimago Journal Rank-en (SJR) arabera.

12. Irudia · Iturria: Scival



3.4
2018-2021 PEaren azterketa

3.4.1
Lortutako erronken analisia

Ikerbasqueren 2018-2021eko Plan Estrategikoan, 2021ean lortu beharreko 12 erronka zehaztu ziren. Hurrengo irudian ikusi

daitekeenez, hauetatik hamar gainditu dira, hau da, %80a. Ikus daitekeenez, Ikerbasquek helburuak bete ditu hamar erronkatan, zehaztutako erronken % 80 baino gehiago gainditu duelarik.

2021ERAKO ZEHAZTUTAKO ERRONKAK	
01. Euskadik 7.000 argitalpen zientifiko lortzea.	
02. Euskadik Estatuko ekoizpen zientifikoan duen pisua gehitzen jarraitzea, guztizkoaren % 7,25era iritsi artel.	
03. Euskal zientzia-sistemaren produktibitatea hobetzea, Estatuko rankingaren 5. postura iristeko.	
04. Euskadiko argitalpen zientifikoaren inpaktu normalizatua hobetzea, Estatuko rankingaren 2. postura iristeko.	
05. Euskadiko argitalpenen % 25 inpaktu goreneko (1D) aldizkarietan egitea.	
06. Gizarte eta Giza Zientzien arloko ekoizpena gehitzen jarraitzea, urtean 1.200 argitalpen zientifiko baino gehiago plazaratuz.	
07. Euskadiko ikerketa zientifikoak RIS3 estrategian definitutako arloetarantz jotzea.	
08. BERCek 1.200 artikulua zientifiko argitaratzea, Euskadiko artikulua guztien % 17.	
09. Ikerbasquek beste 120 ikertzaile kontratatzea 2018-2021 epealdian.	
10. 2021ean Ikerbasquen sartutako ikerketa arloko langileen % 40 emakumeak izatea.	
11. Ikerbasqueko ikertzaileek urtean 1.250 artikulua baino gehiago argitaratzea eta inpaktu handiko argitalpenen kopurua handitzea.	
12. Ikerbasquek 2018-2021 epealdian 80 milioi euroko itzulkina lortzea.	



3.4.2
Helburu estrategikoen lorpena

Aurreko Plan Estrategikoa hiru eremu nagusiren inguruan egituratu da, eta horien emaitza nagusiak aztertuko ditugu jarraian:

TALENTUA

ADIERAZLE GARRANTZITSUAK	2018	2019	2020	18-20 HELBURUA
Kontrataturako Research Professor-en kopurua.	9	14	8	30
Finkaturako Research Associate-en kopurua	8	13	16	30
Kontrataturako Research Fellow-en kopurua	18	24	19	60
Ikerketa arloko langilerian sartutako emakumeen ehunekoa	18%	40%	39%	40%
Ikerketa arloko langileen gogobetetze-indizea	8,44	8,45	8,61	8,5
Harrera Taldeen gogobetetze-indizea	8	8	8	8

KUDEAKETA BIKAINA

ADIERAZLE GARRANTZITSUAK	2018	2019	2020	18-20 HELBURUA
Staff-aren gogobetetze-indizea	9	9,2	9,2	9
Ejarena ez den finantzaketaren ehunekoa	14%	8%	8%	8%
Urteko Kudeaketa Planaren betetze-mailaren ehunekoa	99%	97%	97%	97%

**EZS-ARI EMANDAKO LAGUNTZA**

ADIERAZLE GARRANTZITSUAK	2018	2019	2020	18-20 HELBURUA
EAEn indexatutako urteko argitalpenen kopurua	6.298	6.657	7.400	18.750
Euskadiko argitalpenetan BERCei dagokien ehunekoa	17%	18%	18%	18%
Ikerbasquek indexatutako urteko argitalpenen kopurua	1.076	1.131	1.345	3.360
Ikerbasquek lortutako ERC berriak	6	3	3	9
Ikerbasqueko ikertzaileek lehiakortasun-deialdietan Euskadira erakarritako funtsak (m€)	28	32	35	72

AMIA ANALISIA 4



AMIA ANALISIA

Gogoeta estrategikoa lantzeko, Ikerbasquek barne-azterketa eta kanpo-azterketa egin ditu erakundearen jarraipenerako tresnen laguntzaz (errendimenduari buruzko adierazleak, gogobetetze-inkestak, elkarrizketa pertsonalak, parte-hartze saioak), eta horiexen emaitza da ondorengo AMIA analisia:

INDARGUNEAK

Eusko Jaurlaritzak
Ikerbasqueri emandako
laguntza

Ikerbasqueren aitortpena
eta ospea

Proiektua eta finkatutako
taldea

Emaitza zientifiko bikainak

Inbertsioaren itzulkin
ekonomiko positiboa

Prestigio aitortua duen
Scientific Advisory Board-a

Erakartze-prozesuetan eta
talentuaren ebaluazioan
lortutako esperientzia

Ikerbasqueren
komunitateko kide
izatearen harrotasuna

Intereseko taldeekiko
harreman emankorrak

Aldaketara egokitutako
antolaketa malgua

Euskal Zientzia Sistemaren
duen zeharkako posizioa

Estatu mailako eskaintza
lehiakorra

Arintasuna eta erraztasuna
sustatzen dituen lan-
kultura, Europako
erreferentziako ereduekin
bat datorrena

AUKERAK

Eusko Jaurlaritzak
ikerketaren alde hartutako
konpromisoa

DiZientziaren aldeko
diskurtso soziala

Euskadin Ikerbasque
zientziaaren arloko
genero-berdintasunaren
erreferente izateko aukera

Ikerketaren arloko
jarduketa-nitxo berriak

Ikerketa-profil espezifiko
berrien eskaera

Ikerbasqueko ikertzaileak
i3-tzat barneratzea

COFUND europar
programa berria

2030 ZTBP berria

Horizon Europe europar
esparru-programa berria

Gure erakundea
bikaintasun zientifikoko
erakundetzat
posizionatzea Europan

Finantzaketa-iturri berriak

Eusko Jaurlaritzako
digitalizazio plana –
Open Science Euskadi

Euskadin
superkonputazioari
bulkada i2basque-ren
bidez

AHULEZIAK

Deialdien
erakargarritasun txikiagoa,
kofinantzaketaren ondorioz

Ikerbasqueren
komunitatean dagoen
genero-etena

Eskariaren murrizkera
seniorrenen deialdietan

Dibertsifikazio gutxiko
finantzaketa

Ikerbasqueri buruzko
ezagutza mugatua
gizartean

Ikerbasqueren ezagutza
murrizta atzerrian

Ikerketa-arloen arteko
desoreka

Zientziaren
transferentziarako
zailtasuna

Ikerketa arloko langileak
gainbegiratzeko zailtasuna

MEHATXUAK

Antzeko ekimen berrien
hazkundera estatu mailan

Lehiaren hazkundera gure
mezuak komunikabideetan
zabaltzeko orduan

Zientziaren arloan legezko
eta laneko araudietan izan
daitezkeen aldaketak

Lehiaketa handiagoa
nazioarteko mailan


2024RAKO 12 ERRONKA

5



2024RAKO 12 ERRONKA

Egungo joeren proiektzioa eginez eta ikerketa zientifikoaren aldeko apustuari eutsiz, Euskadik 12 erronka hauei hel diezaieke 2024rako:



2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOA

6






2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

6.1 MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

ikerbasque
Basque Foundation for Science



Ikerbasque Eusko Jaurlaritzak sustatutako erakundea da, Euskadin Zientzia indartzea helburu duena, eta horretarako, ikertzaileak erakarri eta finkatzeko eta Zientziaren Euskal Sistema dinamizatzeko programak garatzen ditu unibertsitate zein ikerketa-zentroen lankidetzaz eta bikaintasunaren aldeko konpromisoari eutsiz.

Eraginkortasuna

Zehaztuta dauzkagun helburuak lortzeko konpromisoa hartu dugu, eta horretarako, modu egokian erabiliko ditugu eskura ditugun baliabideak.

Gardentasuna

Gure intereseko taldeek gure estrategiaren hedapena (zer egiten dugun), erabiltzen ditugun bitartekoak eta lortzen ditugun emaitzak ezagutzeko aukera izan behar dute.

Kontsiderazioa

Errespetuz eta arretaz tratatzen ditugu gurekin harremanetan jartzen diren pertsona eta erakunde guztiak.

Ekitatea

Pertsona bakoitzaren meritua eta gaitasuna baloratzen ditugu, eta erakundearen jardura guztietan aukera zein baldintza berdintasuna bermatzeko lan egiten dugu.

Berrikuntza

Gure lan-giroak sormena eta berrikuntzen planteamendua sustatzen ditu prozesuak hobetu eta arintzeko.

Lankidetzaz

Hedatutako erakundea gara, intereseko taldeekin lankidetzaz estuan jarduen eta taldeka lan egiten duena.

MISIOA


ikerbasque



BALIOA

IKUSPEGIA

Hauexek dira Ikerbasquek 2024rako lortu nahi dituen asmoak:

- Talentu zientifikoa erakarri eta finkatzeko nazioarteko erreferentzia izatea
- Bikaintasun zientifikoko komunitate dinamiko eta produktiboa izatea
- Euskal Zientzia Sistemaren nodo dinamizatzailea izatea
- Euskadiko unibertsitate eta erakunde zientifikoen aliatu estrategikoa izatea
- Kudeaketa aurreratuko ereduagatik aitortua izatea







2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

6.2 ARRAKASTAREN GILTZARRIZKO FAKTOREAK

Landu ditugun kanpo eta barne azterketei esker, erakundearen funtzionamendu egokia eta zehaztutako helburuen lorpena baldintzatzen dituzten zenbait faktore kritiko identifikatu ahal izan ditugu.

Hauexek dira helburu horiek lortzeko giltzarrizko faktoreak:





2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

6.3 IKERBASQUEREN ILDO ESTRATEGIKOAK

Ikerbasqueren helburu nagusia Euskal Zientzia Sistema (EZS) indartzea da. Horretarako, zazpi helburu estrategiko zehaztu dira hiru jarduera-eremutan:

1. Talentu zientifikoaren garapena:

Sortu zenez geroztik, Ikerbasquek ikerketa arloko talentuaren aldeko apustuari eutsi dio, ikertzaileak erakarriz, aberriraturaz eta finkatuz, Euskal Zientzia Sistemaren gaitasunak hobetzeko tresna nagusitzat.

2. Euskal Zientzia Sistema bultzatzea:

Euskal Zientzia Sistemaren erdigunean duen posizioari esker, Ikerbasquek, aipatutako talentu zientifikoaz gain, balio erantsia eman diezaieke eragileei zeharkakotasuna eta eskala beharrezkoak diren eremuetan.

3. Kudeaketa bikainaren garapena:

Kudeaketa arloko jardunbide eraginkor eta dinamikoei eustea funtsezkoa da erakundearen sorrerako helburuak eta helburu estrategikoak lortzeko.



TALENTU ZIENTIFIKOA

IK.1

Euskal Zientzia Sistema indartzea, ikertzaile seniorrak sartuz

IK.2

Euskal Zientzia Sistema indartzea, finkatutako ikertzaileak sartuz

IK.3

Etorkizuneko ikerketa-liderren harrobia sustatzea Euskal Zientzia Sistemarako

IK.4

Ikerbasqueren komunitate zientifiko konektatua eta produktiboa sustatzea

EUSKAL ZIENTZIA SISTEMA

IK.5

Euskal Zientzia Sistemari laguntzea proiektu eta programa estrategikoetan

IK.6

Euskal Zientzia Sistemaren inpaktu zientifikoa, soziala eta ekonomikoa areagotzea

KUDEAKETA BIKAINA

IK.7

Kudeaketa bikaina, irekia eta konprometitua sustatzea

2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

6.4 HELBURU ESTRATEGIKOAK

IK 1 EUSKAL ZIENTZIA SISTEMA INDARTZEA, IKERTZAILE SENIORRAK SARTUZ

Ikerbasque abian jarri zenetik, Research Professor programa izan da talentua erakartzeko ardatz nagusia.

Ikerbasque Research Professor delakoak kanpoko baliabideak erakartzeko iturri garrantzitsua izan dira, eta eragin zuzena dute sistemaren gaitasunen hobekuntzan,

ikertzaileen kontratazioaren eta azpiegitura zientifikoaren hobekuntzaren bitartez.

Helburu estrategikoa jarduera-ildo hauen bitartez zabaldu da:

HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUERA-ILDOAK
IK 1 Euskal Zientzia Sistema indartzea, ikertzaile seniorrak sartuz	Maila goreneko langile zientifikoak Research Professor bezala sartzea Euskadiko erakunde zientifikoetan.
	Euskal Zientzia Sisteman beharrezkoak diren seniorren profilak sartzeko deialdi espezifikoak egitea.
	Maila goreneko langile zientifikoak sartzea Euskadiko erakunde zientifikoetan, ERC eta maila goreneko antzeko nazioarteko finantzaketa lehiakorra duten ikertzaileak erakarritz.



IK 2

EUSKAL ZIENTZIA SISTEMA INDARTZEA, FINKATUTAKO IKERTZAILEAK SARTUZ

Ikertzaile-karreraren jarraipena funtsezkoa da Euskadin talentu zientifikoa finkatzeko eta talentua erakartzea xede duten politikak biribiltzeko, finkatutako ikertzaileak egonkortuz.

Premia gero eta handiago honi erantzun nahian, Eusko Jaurlaritzak eta Ikerbasquek

Research Associate programa abiarazi zuten 2016an, Euskadin doktorego ondoko Ikerbasque Research Fellow, Ramón y Cajal eta Miguel Servet programei jarraipena emateko eta horien posizioak egonkortzeko, ikertzaile bikaintzako karrera zientifiko integrala bermatuz.

HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUERA-ILDOAK
IK 2 Euskal Zientzia Sistema indartzea, finkatutako ikertzaileak sartuz	Ikerbasque Research Fellow-en ikerketa-karrera finkatzea.
	Finkatutako langile zientifikoak Research Associate bezala sartzea Euskadiko erakunde zientifikoetan.
	Euskal Zientzia Sisteman beharrezkoak diren profil finkatuak sartzeko deialdi espezifikoak egitea.
	Ramón y Cajal eta Miguel Servet programetan dauden EZSeko ikertzaileei ikerketa-karrera finkatzeko aukera ematea.
	Etorkizun handiko langile zientifikoak sartzea Euskadiko erakunde zientifikoetan, ERC eta nazioarteko antzeko nazioarteko finantzaketa lehiakor garrantzitsua duten ikertzaileak erakarriz.

2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

IK 3 ETORKIZUNEKO IKERKETA-LIDERREN HARROBIA SUSTATZEA EUSKAL ZIENTZIA SISTEMARAKO

Ikerbasquek 2012an abiarazi zuen lehenengo aldiz Research Fellows deialdia, bikaintasuneko ikertzaile gazteak erakarri eta Euskadin atxikitzeko berariaz diseinatutako ekimena, zientzialarien “harrobia” sortzea xede duena.

Euskal Zientzia Sistema proiektzio handia duten ikertzaile gazteez hornitzea da helburua, euskal ikerketari epe luzeko jarraipena eman ahal izateko.

HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUERA-ILDOAK
IK 3 Etorkizuneko ikerketa-liderren harrobia sustatzea Euskal Zientzia Sistemarako	Etorkizuneko lider zientifikoak sartzea Euskadiko erakunde zientifikoetan.
	Euskadin trebatutako talentu zientifiko juniorraren itzulera sustatzea.
	Ikertzaile gazteen garapen zientifikorako ingurune egokia sortzea.

IK 4

IKERBASQUEREN KOMUNITATE ZIENTIFIKO KONEKTATUA ETA PRODUKTIBOA SUSTATZEA

2007an sortu zenez geroztik, Ikerbasquek hainbat programa garatu ditu ikerketa arloko talentua erakartzeko, eta horien ondorioz, egun Euskal Zientzia Sistemako 23 unibertsitate eta ikerketa-zentrotan banatutako 290 zientzialari dituen ikerketa-komunitatea osatu du.

Komunitate honek dinamizatzeko gaitasun handia du, baita Ikerbasquek aurre egin beharreko premia espezifikoak ere.

HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUERA-ILDOAK
IK 4 Ikerbasqueren komunitate zientifiko konektatua eta produktiboa sustatzea	Ikertzaileak Euskadiko erakunde zientifikoetan erabat integratzen laguntzea.
	Ikerbasqueko ikertzaileei babesa eta laguntza eskaintzea.
	Karrera Garatzeko Hiru Urteko Planaren mekanismoak hedatzea.
	Deialdi guztietan emakumeen sarrera sustatzea.
	Gure ikertzaileen ikerketaren emaitzen eta inpaktuaren zabalkundea sustatzea.
	Ikerbasqueko ikertzaileentzako karrera-plan lehiakorra garatzea.
	Ikertzaileei zuzendutako HRS4R europar politikaren hedapena osatzea.
	Gure ikertzaileen gaitasunen garapen integrala sustatzea.
	Ikerbasqueren komunitatearen produktibitatea sustatzea.

2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

IK 5

EUSKAL ZIENTZIA SISTEMARI LAGUNTZEA PROIEKTU ETA PROGRAMA ESTRATEGIKOETAN

Euskal Zientzia Sistemaren erdigunean duen posizioari esker, Ikerbasquek politika zientifikoko ekimenak zabal ditzake interes estrategikoko esparruetan sistemaren errendimendu globala hobetu ahal izateko.

HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUERA-ILDOAK
IK 5 Euskal Zientzia Sistemari laguntzea proiektu eta programa estrategikoetan	Ikerketarako gune eta laborategi berriak bultzatzea (BIHAR).
	Lankidetzaz bidezko ikerketarako IKUR estrategia zabaltzea funtsezko arlo zientifikoetan.
	Azpiegitura eta ekipamendu zientifiko berriak sustatzea LINKER programan.
	BERC sarearen kudeaketan lagunduz Euskal Zientzia Sistema indartzea.
	Euskadiko ikerketa-komunitatearen babesa sustatzea Euraxess Service Centerren bitartez.
	Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko eragileei telekomunikazio-azpiegiturak eta superkonputazio zerbitzuak ematea, i2Basque sarearen bitartez.



IK 6

EUSKAL ZIENTZIA SISTEMAREN INPAKTU ZIENTIFIKOA, SOZIALA ETA EKONOMIKOA AREAGOTZEA

Ikerbasquek EZSan duen zeharkakotasunari eta erakundearen neurriari esker, posizionamendu egokia du Euskal Zientzia Sistemaren tokiko zein nazioarteko ikusgarritasuna eta erakargarritasuna erraz ditzaketen ekimenak garatzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUERA-ILDOAK
IK 6 Euskal Zientzia Sistemaren inpaktu zientifikoa, soziala eta ekonomikoa areagotzea	Euskal Zientzia Sistemaren inpaktu zientifikoa handitzea.
	Zientzia gizartean zabaltzeko ekimenak abiaraztea.
	Garatutako ezagutza zientifikoa gizartearen eta ekonomiaren onurara transferitzen laguntzea.
	Bikaintasun zientifikoko ikerketarako funtsak Euskadira erakartzea.
	Euskadiko jarduera zientifikoaren monitorizazioa, jarraipena eta komunikazioa.
	Euskadiko sare zientifiko-teknologikoaren gaitasunak biltzen dituen science.eus web-atariaren funtzionalitateak areagotzea.
	Finantzaketa lehiakorrari buruzko dibulgazio-tresnak eskaintzea.

2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

IK 7 KUDEAKETA BIKAINA, IREKIA ETA KONPROMETITUA SUSTATZEA

Kudeaketa-tresna eraginkor eta dinamikoak mantentzea funtsezkoa da erakundearen gainerako helburu estrategikoak lortzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOA	JARDUERA-ILDOAK
IK 7 Kudeaketa bikaina, irekia eta konprometitua sustatzea	Ikerbasquen etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatzea.
	Ikerbasqueren politikak bultzatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ziurtatzea eta kudeaketa ekonomiko eraginkorra egitea.
	Parte-hartze eta gardentasunaren arloko tresnak sustatzea, intereseko taldeekiko harremanak sendotzeko.
	Erakundean aukera-berdintasuna sustatzea, Berdintasun Plana inplementatuz eta garatuz.
	Ikerbasquen jakintza-arlo desberdinak modu orekatuan garatzea.
	Sozialki arduratsuak diren ekintzen garapena bultzatzea.
	Ikerbasque-ko deialdien kofinantzaketa Euskal Zientzia Sistemako erakundeekin kudeatzea.



2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

6.5 ESTRATEGIA 2030 ZTBPAREKIN LERROKATZEA

Ikerbasqueren estrategia eta jarduera estu-estu lerrokatuta daude 2030 ZTBP deritzon 2030erako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin.



Ikertzen eta berritzen diharduten pertsonen talentua, Ikerbasqueren bereizgarrietako bat, 2030 ZTBParent ardatz nagusia da. Horregatik, Ikerbasquek talentua erakarri, aberriratu eta atxikitzeke abian duen lehen ildo estrategikoak bultzada zuzena ematen dio Planaren osagai nagusiari.

Aldi berean, 2030 ZTBParent osagai nagusiak hiru zutabe ditu. Horietan, Ikerbasque modu aktiboan parte hartzen ari da Bikaintasun Zientifikoari dagokion l. Zutabearen garapenean, oinarri zientifiko hobetzeko eta, bikaintasunezko ikerketaren bitartez nahiz Euskadiren gaitasun teknikoak eta zientifikoak areagotuz, ezagutzaren sorkuntza bultzatzeko.

Eragiketari lotuago dagoen esparruan, 2030 ZTBParent hiru zutabeak eta osagai nagusia lau helburu operatiboren arabera egituratu dira. Helburu operatibo horietan, Ikerbasquek eginkizun garrantzitsua bete dezake lehenengoan, Euskal Zientzia Sistemaren emaitzak maximizatzuz; hirugarrenean, atzerriko talentua eta funtsak erakarri I+G+b arloko euskal sistemaren nazioartekotzea babesteko; eta laugarrenean, ikerketa arloko talentuaren sustapena indartuz, bereziki emakumeen artean.

Jarraian ikus daiteke, Ikerbasqueren jarduerak eta estrategiak 2030 ZTBParent zehaztutako zutabeetan eta helburu operatiboetan eragin dezaketenez inaktuaren laburpena:

ERAGIN ZUZENA ●
ZEHARKAKO ERAGINA ●
ERAGIN MUGATUA ●

	1. ZUTABEA Bikaintasun zientifikoa	2. ZUTABEA Lidergo tek.-ind.	3. ZUTABEA Berrikuntza irekia	TALENTUA
1. HELBURU OPERATIBOA EMAITZEKIKO ORIENTAZIOA	●	●	●	●
2. HELBURU OPERATIBOA I+G ETA ENPRESA-BERRIKUNTZA	●	●	●	●
3. HELBURU OPERATIBOA NAZIOARTERATZEA	●	●	●	●
4. HELBURU OPERATIBOA TALENTUA	●	●	●	●

2021·2024 PLAN ESTRATEGIKOA

6.6 ESTRATEGIA GIHEKIN LERROKATZEA

Ikerbasqueren estrategiak eragin handia du GIH gehienetan.

Erakunde gisa egiten dugun jardueraz gain, Ikerbasqueren komunitateak ezagutza zabaltzeko lan egiten du esparru zientifiko guztietan.

Ondorioz, Ikerbasque 17 helburu estrategikoetako 14 aurrera ateratzen laguntzen ari da:





03.

Egun, Ikerbasqueren komunitatearen % 25ek **osasunaren eta bizitzaren** zientzietan garatzen du bere ikerketalana.



04.

Ikerbasqueren komunitatearen parte-hartzea bultzatzen dugu etorkizuneko ikertzaileen prestakuntzan, **kalitatezko hezkuntza** sustatuz.



05.

Genero-berdintasuna sustatzen dugu gure deialdietan, aukera-berdintasuna bermatuz.



07.

Ikerbasqueko ikertzaileetako batzuek **energia-eraginkortasunaren eta energia ez-kutsatzailearen** inguruan garatzen dute beren ikerketalana.



08.

Lan-baldintza duinekin konprometituta gaude.



09.

Azpiegituren garapena eta industriarako transferentzia babesten ditugu.



10.

Aukera eta baldintzen **berdintasuna** sustatzen dugu esparru guztietan.



11.

Hiri eta komunitate jasangarriak: Unibertsitateetan eta BERC zentroetan dauden Ikerbasqueko ikertzaile batzuek esparru honetan lan egiten dute.



12.

Eskura ditugun baliabideen **erabilera arduratsua** eta eraginkorra egiten dugu.



13.

Ikerbasquek **ingurumen-inpaktua minimizatuz** garatzen du bere jardura.



14.

PIEko ikertzaileek eta unibertsitateetako zein ZZTetako ikertzaile batzuek **itsaspeko bizitza** aztertzen dihardute.



15.

Ikerbasqueren komunitateko zenbait kidek, bereziki BC3 zentroan eta unibertsitateetan, **lehorreko ekosistemen bizitza eta birgaitzea** ikertzen dihardute.



16.

Bakea eta justiziari buruz egindako ikerketaz gain, **egonkortasun instituzionalari** eusten laguntzen dugu profesionaltasunaren eta gardentasunaren bitartez.



17.

Dagokigun zeregina garatzen dugu, gure intereseko taldeekiko eta elkarren mesedeko **aliantza** onuragarrien bitartez.


2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOA

6.7 PROZESUEN MAPA

Hasiera-hasieratik, Ikerbasquek prozesuen araberako kudeaketa-eredua erabili du; lehenenago, EFQMan oinarrituta, eta oraintsuago, Kudeaketa Aurreratuko Eredua (KAE) oinarritzat hartuta, erakundearen Misioari eta Ikuspegiari jarraiki eta plan honen Estrategiari eta helburuen kudeaketari eutsiz.

Ikerbasqueren 2021-2024 epealdirako estrategia eta helburuak giltzarritzko eta euskarritzko alderdi estrategikoei eusten dieten prozesuen bitartez zabaltzen dira. Ikerbasqueko prozesuen mapa urtero berrikusten da.

Egun, hauexek dira Ikerbasquen zehaztuta dauden prozesuak:



AGINTE-KOADRO INTEGRALAREN ADIERAZLEAK

7





AGINTE-KOADRO INTEGRALAREN ADIERAZLEAK

Hauexek dira 2021-2024 epealdirako Aginte-Taula Integralaren adierazle nagusiak:

Ikerbasque 2021-2024 Aginte-koadro integrala	
Helburu estrategikoa	
1	Euskal Zientzia Sistema indartzea, ikertzaile seniorrak sartuz
2	Euskal Zientzia Sistema indartzea, finkatutako ikertzaileak sartuz
3	Etorkizuneko ikerketa-liderren harrobia sustatzea Euskal Zientzia Sistemarako
4	Ikerbasqueren komunitate zientifiko konektatua eta produktiboa sustatzea
5	Euskal Zientzia Sistemari laguntzea proiektu eta programa estrategikoetan
6	Euskal Zientzia Sistemaren inpaktu zientifiko, soziala eta ekonomikoa areagotzea
7	Kudeaketa bikaina, irekia eta konprometitua sustatzea

		2021	2022	2023	2024	PE 21-24
Aginte-koadro integralaren adierazleak		Helb.	Helb.	Helb.	Helb.	Helb.
1	Urtean gehitutako RP kopurua	5	5	5	5	20
2	RPra pasatzen diren RA kopurua	1	1	1	1	4
3	RP aktibo kopurua	180	185	190	195	195
4	Urtean gehitutako RA kopurua (kanpotik)	5	5	5	5	20
5	RAra pasatzen diren RF kopurua	5	5	10	10	30
6	RA aktibo kopurua	50	65	80	95	95
7	Urtean gehitutako RF kopurua	15	15	15	15	60
8	Urtean gehitutako Basque Fellows kopurua	8	7	8	7	30
9	RF aktibo kopurua	80	80	80	80	80
10	Ikerbasque ikerlari aktibo kopurua	310	340	370	400	400
11	Emakume ikerlarien ehunekoa ikerbasque ikerlarien artean	24%	25%	26%	27%	27%
12	Urteko Ikerbasque ikerlarien argitalpen zientifikoak (Scopus)	1.400	1.470	1.530	1.600	1.600
13	Urteko Ikerbasque ikerlarien argitalpen zientifikoak hazkundera (Scopus)	7%	7%	7%	7%	25%
14	Urteko Ikerbasque ikerlarien bikaintasuneko argitalpen zientifikoak ehunekoa (D1)	50%	50%	50%	50%	50%
15	Ikerbasque-ren H indizea	160	170	180	190	190
16	Ikerbasque ikerlariak lortutako ERC berriak	3	2	3	2	10
17	Ikerbasque ikerlariak erakarrutako funtsak (milioi €)	35	37	38	40	150
18	RP ikerlariak indexatutako dokumentuen batzbestekoa	5,5	5,5	5,5	5,5	5,5
19	RP ikerlariak erakarrutako batzbesteko funtsak (mila €)	140	140	140	140	140
20	RA ikerlariak indexatutako dokumentuen batzbestekoa	3,5	3,5	3,5	3,5	3,5
21	RA ikerlariak erakarrutako batzbesteko funtsak (mila €)	120	120	120	120	120
22	RF ikerlariak indexatutako dokumentuen batzbestekoa	2,5	2,5	2,5	2,5	2,5
23	RF ikerlariak erakarrutako batzbesteko funtsak (mila €)	40	40	40	40	40
24	Ikerbasque ikerlariak zuzendutako ikerketa taldeetako pertsona kopurua	1.200	1.300	1.400	1.500	1.500
25	RP ikerlarien asebetetze indizea	8	8	8	8	8
26	RA ikerlarien asebetetze indizea	8	8	8	8	8
27	RF ikerlarien asebetetze indizea	8	8	8	8	8
28	Ikerbasque ikerlariak jasotzen dituzten entitateen asebetetze indizea	8	8	8	8	8
29	BERC zentroak argitaratutako dokumentu kopurua (Scopus)	1.400	1.500	1.600	1.700	1.700
30	BERC zentroen ehunekoa Euskal ekoizpen zientifiko totalarekiko (Scopus)	18%	18%	18%	18%	18%
31	BERC zentroen bikaintasuneko argitalpen zientifikoak ehunekoa (D1)	50%	50%	50%	50%	50%
32	i2basque sarera konektatutako ZTBP erabiltzaileak	12.000	12.500	13.000	14.000	14.000
33	Urtean Euskadin indexatutako argitalpen zientifiko kopurua (Scopus)	7.500	8.000	8.500	9.000	9.000
34	Urteko Euskadiko argitalpen zientifikoak hazkundera (Scopus)	10%	7%	7%	7%	30%
35	Euskadiko bikaintasuneko argitalpen zientifikoak ehunekoa (D1)	30%	31%	32%	33%	33%
36	Euskadin lortutako ERC berriak	3	3	3	3	12
37	Ikerbasque ikerlarien partaidetza duten oinarri zientifiko-teknologikoko spin-off berriak	1	1	1	1	4
38	Urtean gehitutako ikerlarien artean, emakumeen ehunekoa	40%	40%	40%	40%	40%
39	Staff langileen asebetetze indizea	8,5	8,5	8,5	8,5	8,5
40	Lortutako funtsak EJKo ekarpenarekiko	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5
41	EJ kanpoko funtsen ehunekoa	10%	10%	10%	10%	10%

AURREKONTUA

8






AURREKONTUA


Ikerbasqueren aurrekontua estu-estu lotuta dago ikerketa arloan aurreikusitako langileen hazkundearekin, eta **hiru finantzaketa-iturri** nagusi ditu egun:

- **Eusko Jaurilaritza**, Hezkuntza Sailaren eta Berrikuntza Funtzaren bitartez.
- **Europar Batasuna**, hainbat deialdi lehiakorretan ezarritako finantzaketaren bitartez.
- **EZSeko erakunde zientifikoak** berak, Ikerbasqueko ikertzaileen sarrera kofinantzatzen dutenak.

Plan Estrategiko honetan jasotako jarduera-ildoak garatzeko, gastu eta inbertsioen aurrekontu hau kalkulatu da 2021-2024 epealdirako, 3 jarduera-eremutan banakatuta:



JARDUERA EREMUA	2021	2022	2023	2024	EPEALDIAN GUZTIRA
1. Talentu zientifikoaren garapena	20.000.000	21.500.000	23.000.000	24.500.000	89.000.000
2. Euskal Zientzia Sistema bultzatzea	7.500.000	7.500.000	7.500.000	7.500.000	30.000.000
3. Kudeaketa bikainaren garapena	550.000	600.000	650.000	700.000	2.500.000
URTEAN GUZTIRA	28.050.000	29.600.000	31.150.000	32.700.000	121.500.000



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

2024 Plan Estrategikoa

ikerbasque
Basque Foundation for Science